

E-28KO PLATAFORMAREN PRENTSAURREKOA

Kaixo, egun on.

Eskerrik asko Ekainaren 28ko Plataformaren prentsaurrekora etortzeagatik. Plataformako kideak gara lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen zenbait talde (LGTBI), HIESaren aurkako elkarte batzuk, feministen talde batzuk eta beste jende multzo ugari.

Nafarroako Parlamentura deitu dizuegu izan ere aurten, udaletarako eta legebiltzarrerako hauteskundeak egin diren honetan, E-28ko Plataforma erruz saiatu baita jendearte eta alderdi politikoak jabetu daitezzen neurri egokiak hartu behar direla Nafarroako gure kolektiboaren goera eta bizi baldintzak hobetzeko.

Horretarako elkartu ginen alderdi politikoekin hauteskunde aurretik, haien programan sar zezaten guretzat funtsezkoa dena, aurrera egin dadin pertsona guztion eskubide berdintasunean.

Bileretan egon ziren ordezkari politiko ia guztiek adierazi zuten gure aldeko erantzuna, aurkeztu genizkien eskakizunei buruz.

Hona hemen aipatutako eskakizunak:

- **Lege bat sustatzea** lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen (LGTBI) eskubideak garatzeko eta bermatzeko eta haienganako bazterkeria eta indarkeria eragozteko.

Kataluniako Parlamentuak 2014ko urriaren 10ean onetsitakoaren antzeko ezaugarriak dituen legea. Gure ustez, premiazkoa da Nafarroan gisa horretako lege baliabideak izatea.

- **LGTBlontzako, hots, lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualontzako informazio eta arreta bulego baten beharra.**
- **Aniztasun afektibo-sexuala ezartzea hezkuntza maila guztietako nahitaezko curriculumean.**
- **Nafarroan transexualitateari buruz onetsitako legea betetzea eta horretarako behar dituen tresnak izan ditzan bermatzea.**

Proposamen horien xedea da ingurune bat eratzea jendartearen eta legearen aldetik, LGTBlok historian zehar jasan dugun zapalkuntza buka dadin.

Sexu orientazioagatik eta genero identitateagatik jazarpena, bazterkeria eta erasoak jarraitzen dute oraindik. Bada, LGTBlon errealitatearen behatoki bat, zerbitzu bereziak eta

hezkuntza arloan behar diren tresnak ezartzea, onuragarri izanen da lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualontzat eta jendartearentzat, oro har.

Pozik gaude Nafarroako Parlamentuak babesten duelako aspaldi handian gure elkarteek egindako lana. Espero dugu laster bazterkeriaren aurkako legea onestea eta, horren bidez, behar diren baliabide ekonomikoak iristea gure kolektiboaren arretarako bulegoa antolatzeko. Bereziki oroitarazten diogu gobernu berriari komenigarria ikusten dugula aipatutako legea lehentasunen artean sartzea.

Bestalde, aurreko urteetan bezala, aurten ere gutuna bidali diegu Foru Komunitateko udal guztiei, haien mugapea LGTBIfobiarik gabeko lurraldea dela adieraz dezaten eta ortzadarren bandera jar dezaten egun hauetan, ematen duten laguntza erakusteko. Espero dugu, udalen esparrutik ere, inklusio politikak aurrera eramatea eta aniztasun afektibo-sexuala bultzatzea.

Orobat, kontzientziazioa hedatzearen, eskutitz bat igorri dugu Nafarroako ikastetxe guztietara bai Maiatzaren 17an (LGTBIfobiaren aurkako eguna) bai Ekainaren 28an (sexu askatasunaren eguna), aniztasun afektibo-sexuala lantzeko jarduerak egin ditzaten.

Prentsaurreko honetan iragartzen dizkizuegu ondoko egunetarako antolatutako ekitaldiak:

Ekainaren 27a: LGTBI festa 2015. Jai giroan, Iruñeko Alde Zaharrean, gure eskubideetan aurrera egiteko aukera historiko hau ospatuko dugu. Ostatu batzuen laguntza ere badaukagu.

Ekainaren 28a: Manifestazioa, 12:30etan, autobus geltoki zaharretik, aniztasun afektibo-sexuala aldarrikatzeko eta gure eskubideak eskatzeko.

Dei egiten diogu jende guztiari ekitaldietan parte har dezan.

Eskerrik asko.

